# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilak 15**

**Vitoria-Gasteiz, 15 de enero de 2019**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

**EUSKO JAURLARITZA BREXITAREN INGURUAN EGINIKO BALORAZIOA, 2019KO URTARRILAREN 15EAN**

Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetea albiste txarra da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ulertzen du erantzun egin behar zaiola Britainia Handiko herriak 2016ko ekainaren 23ko erreferendumean berretsitako hautaketari.

Eusko Jaurlaritzak irmoki bultzatzen du adostutako eta antolatutako irteeraren egoera, EBren eta Erresuma Batuaren talde negoziatzaileen artean adostutako *Irteera Akordioa*n aurreikusitakoa bezalakoa; Europako Kontseiluaren aho bateko babesa izan zuen. Horrela, aldeen interesak babesten dira, herritarren eta operadore sozioekonomikoen eskubideak ere babesten dira, eta etorkizuneko harremanaren oinarriak ezartzen dira.

Datozen egunetako gertakarien ondorioz Erresuma Batuaren irteera EBtik latza bada, testuingurua konplexua izango da, bai EBrentzat, eta bereziki Erresuma Batuarentzat. Eusko Jaurlaritzak lan bizia egingo du, Espainiako Gobernuarekin, Erkidegoko agintariekin eta Brexitaren segimendu-batzordeko kideekin hertsiki lankidetzan, herritarren eta euskal operadore sozioekonomikoen interesak babesteko.

Gogorarazten dugu Europako Batzordeak jendaurrean jarri duela, dagoeneko, kontingentzia-plana, irteera latzaren eragina arintzeko. Era berean, Espainiako Gobernuak bere eskumeneko eremuetan neurri-pakete bat prestatu duela jakinarazi du. Espero dugu EBn bizi diren herritar britainiarren eskubideak erabat bermatzeko iragarritako konpromiso politikoak, bai Europako Batzordeak iragarritakoak, bai Espainiako Gobernuak iragarritakoak, zentzu bera izatea Erresuma Batuko agintarien aldetik eta, horrela, Erresuma Batuan bizi diren euskaldunen eta Euskadin bizi diren britainiarren erkidego osoaren eskubideak babestuta geratzea. Eusko Jaurlaritzak jarraituko du gai hori hurbiletik aztertzen eta aurrerapenen berri ematen.

Era berean, enpresa-eremuan akordiorik gabeko Brexitaren ziurgabetasuna arintzeko, Eusko Jaurlaritzak euskal enpresei informazioa eta aholkularitza emateko zerbitzu berezia jarriko du abian, testuinguru berrira egokitzeko prest egon daitezen.

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

**EUSKO JAURLARITZAK TRESNA BAT GAITU DU, ENPRESEI ERRESUMA BATUA EBTIK IRTETEAK EKAR DEZAKEENARI BURUZKO AHOLKULARITZA EMATEKO**

- **www.brexit.eus web-orrian ETEek Euskadiko Nazioartekotze Agentziak Londresen duen bulegoarekin elkarreraginean jardun ahalko dute.**
- **Otsaila amaieran,, autodiagnostikorako tresna bat sartuko da, enpresek beren kontingentzia-planak diseinatu ahal izateko**
- **Otsailaren 13an, "Brexiterako prestatu" jardunaldia izango da, eta, bertan, Simon Manley Erresuma Batuak Euskadin duen enbaxadorea izango da**

BREXIT Batzordeko buru da Iñigo Urkullu Lehendakaria, eta Batzordeak bere gain hartu zuen enpresetan Erresuma Batua EBtik irteten denerako prestatuta egoteak duen garrantziaren inguruko kontzientzia eragiteko mekanismoa diseinatzeko konpromisoa, beharrezkoa den kasuetan, 2019ko martxoaren 29an adostasunik gabe irtengo dela aintzat hartuta egoera horren aurrean kontingentzia-planak egiteko.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Euskadiko Nazioartekotze Agentziaren bidez –SPRIri atxikita–, webgunea prestatu du eta, bertan, enpresek beren kontingentzia-planak prestatzeko eman beharko dituzten urratsen inguruko informazioa, oharrak eta gomendioak jaso dira.

2019ko martxoaren 30etik aurrera, Erresuma Batua hirugarren herrialde bat izango da. Bertatik irtetean, harreman-modua aldatu egingo da, eta horrek eragin esanguratsuak izango ditu enpresentzat eta herritarrentzat.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, garrantzitsua da irteeraren inguruan prestatzea eta beharrezko neurriak sasoiz hartzea; hori dela eta, aholkularitza eskaintzen du, enpresak prest egoteko eta irteeraren inguruko kalte eta zalantzak ahalik eta gehien murrizteko, batik bat adostasunik ezeko testuingurua aintzat hartuta.

Gaur egun, 500 euskal enpresa inguruk esportatzen dute merkatu britainiarrera, eta 60 firma inguruk dituzte merkataritza- eta/edo ekoizpen-ordezkaritzak. Erresuma Batua helmugako laugarren merkatua da, eta euskal esportazio guztien % 6 hartzen du.

**"Brexit gaur" webgunea**

Eusko Jaurlaritzak BREXIT.EUS webgunea gaitu du –SPRI Taldearen eta Euskadiko Nazioartekotze Agentziaren orrialdeetan finkatuta dago–, eta, tresna horren bidez, enpresa-egiturari informazioa, aholkularitza eta hitza emango zaio.

Euskadiko Nazioartekotze Agentziak Londresen duen bulegoa da edukien informazioaren eta kudeaketaren buru, eta Erresuma Batuaren eta Euskadiren arteko merkataritza-harremanean eragina izan dezaketen jakinarazpen ofizialak eta berak prestatutako intereseko informazioak sartzen ditu.

Informazio baliagarria eskaini eta antolatzeaz gainera, Euskadiko Nazioartekotze Agentziak alertak bidaltzen ditu, ohar garrantzitsuekin, eta elkarrizketa irekia eta etengabea du interes orokorreko eta beraiengan eragina duten alderdi partikularren inguruko zalantzak planteatzen dituzten enpresekin.

Era berean, eskematikoki jaso ditu sektore ekonomikoen arabera jarduteko gomendioak eta, era berean, alderdi orokorrei erantzuteko, besteak beste, muga-zergei, aduanetako kontrolei, zerga-politikari, garraioari edo langileen joan-etorriarekin zerikusia duten alderdiei.

Web-zerbitzu horrek gaur arratsaldean parlamentu britainiarrean izango den bozketa egin ondoren etor daitezkeen egoerak aztertzen ditu, eta “brexitari aurpegiak” jartzen dizkio, Britainia Handiko eta Europako pertsona esanguratsuen aurpegi eta izen nagusiekin.

**Autodiagnostikorako plataforma**

Aurki, enpresek testuinguko berriaren arabea, euren diagnosia egiteko balio izango duen plataforma txertatuko da brexit.eus web gunean. Analisi honen bitartez, enpresen ahulguneak eta indarguneak ezagutuko dituzte, horien arabera neurriak har ditzaten eta etorkizunera Brexit-ak zabaldu ditzaken negozio aukerak prestatzeko.

**“Brexiterako prestatu” jardunaldia**

Aholkularitza zerbitzu honen arretagune da, bereziki, adostasun ezeko testuingurua; izan ere, Britainia Handiko merkatuan interesak dituzten enpresen beraien inplikazioa eskatuko du.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren helburua ez da mezu alarmistarik aktibatzea, baina bai prestatuta egoteak nolako garrantzia duen adieraztea.

Hori dela eta, datorren otsailaren 13an, enpresa-egiturari zuzendutako jardunaldia izango da, kontingentzia-planak egiteko beharran sakontzeko, eta, aldi berean, etorkizuneko egoeran ireki daitezkeen erronkak eta aukerak aztertuko dira.

“Brexiterako prestatu” jardunaldian Simon Manley Erresuma Batuko enbaxadorea izango da, bai eta nazioarteko zuzenbideko, kanpo-merkataritzako eta Brexiten analisiko ahots adituak ere.

Jardunaldia bertaratu nahi duten enpresa guztiei zabalik dago, eta hemen eman ahalko dute izena: https://www.spri.eus/event/brexit-erako-prestatzen/

**Lana eta Justizia**

## GOBERNUAK GIZARTE-ELKARRIZKETARAKO MAHAIA SORTZEKO DEKRETUA ONETSI DU

- **Dekretuaren bidez Gizarte Elkarrizketarako Mahaia Gobernuaren eta ordezkaritza gehien duten sindikatu- eta enpresa-erakundeen arteko hirualdeko, topaketarako eta partaidetzarako organo gisa erakundetu da**

- **Eginkizunetako bat da gizarte- eta lan-arloko edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragina duten politika publikoen negoziazioa eta kontzertazioa sustatu eta horiei bide ematea**

- **Dekretu hau urtarrilaren 19rako indarrean sartzea aurreikusten da eta indarrean sartzen denetik hilabeteko epean, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia eratuko da**

- **Lanaren eta Lan Harremanen, Enpleguaren, Industriaren, Ekonomiaren Garapenaren eta Hezkuntzaren arloan eskumenak dituzten sailetako titularrek ordezkatuko dute Gobernua**

Gobernu Kontseiluak Gizarte Elkarrizketarako Mahaia Eusko Jaurlaritzaren eta ordezkaritza gehien duten sindikatu- eta enpresa-erakundeen arteko hirualdeko, topaketarako eta erakunde-partaidetzarako organo gisa sortzeko Dekretua onetsi du.

Lan-arloan eskumena duen Sailari atxikita, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren bidez, Euskadin gizarte-kohesioa eta bilakaera ekonomikoa indartzeko gobernamendu oneko tresna gisa, gizarte- edo lan-eremuan edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragina duten politika publikoak diseinatzeko eta, hala badagokio, negoziatzeko eta hitzartzeko prozesuetan ordezkaritza gehien duten sindikatu- eta enpresa-erakundeen esku-hartzea bideratuko da.

Dekretuak ezartzen du Lanaren eta Lan Harremanen, Enpleguaren, Industriaren, Ekonomiaren Garapenaren eta Hezkuntzaren arloan eskumenak dituzten sailetako titularrek ordezkatuko dutela Eusko Jaurlaritza Gizarte Elkarrizketarako Mahaian. Aldi berean, Mahaia eratzen dute, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan ordezkaritza gehien duten eta bertan sartzea eta aktiboki parte hartzea onartzen duten sindikatu- eta enpresa-erakundeek. Horietako bakoitzak ordezkariak izendatuko ditu.

Dekretua 3 kapitulutan egituratzen da, eta 10 artikulu ditu. Sarreran nabarmentzen du Europar Batasuneko gizarte moderno eta aurreratuenen bereizgarria eta ezaugarria dela administrazio publikoaren eta ordezkaritza

gehien duten sindikatu- eta enpresa-erakundeen arteko gizarte-elkarrizketa erakundetzea; izan ere, gizarte horiek ulertzen dute gizarte-modernoa bizi- eta lan-baldintza eta justizia sozialeko baldintza hobeak sustatzeko mekanismo onena dela. Horrela, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzeko eta kalitateko lana askatasun-baldintzak, segurtasuna eta duintasuna oinarri izanik lortzeko ezinbesteko eginkizuna du eta, horren bidez, hobetu egiten da ekonomiaren etekina eta lehiakortasuna eta gizarte egonkorragoa eta zuzenagoa lortzen da. Gizarte-elkarrizketaren egiturak eta horren inguruan arrakastaz garatu diren prozesuak ekonomia- eta gizarte-arloko kontu garrantzitsuak konpontzeko gai izan dira; horrela, bilakaera eta gobernu ona bizitu dute, eta egonkortasun eta garapen ekonomikoa sustatu.

Hori horrela, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) ere adierazi bezala, jaso du Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak Gotenburgoko Gizarte gizarte-arloko goi-bileran batera aldarrikatu zuten Gizarte Eskubideen Europako Oinarriak ezartzen duela gizarte-elkarrizketak oinarrizko eginkizuna betetzen duela gizarte-eskubideak eta hazkuntza jasangarria eta inklusiboa sendotzen. Gizarte-elkarrizketaren helburu nagusia lan-munduan dauden solaskide nagusien adostasuna eta parte-hartze demokratikoa lortzeko sustapena da.

Halaber gogorarazten du Eusko Jaurlaritzak azken hiru legegintzaldietan nabarmen sustatu duela administrazio publikoaren eta sindikatu- eta enpresa-erakundeen arteko etengabeko gizarte-elkarrizketa; hura, orain, Dekretu honen bidez erakundetzen da, eta helburu du etengabeko gizarte-elkarrizketa erakundetu eta, ondorioz, ituntzea finkatzea. Hori, zalantzarik gabe, demokraziaren fenomeno politiko aberasgarrienetako bat da.

Dekretua Euskadirako Autonomia Estatutuaren 10.2 artikuluan aurreikusitakoa garatzeko eman da; hala ere, bai Gobernuak bai Mahaia eratzen duten erakundeek etorkizunerako, mahaiaren beraren funtzionamendua ebaluatu ondoren, lege-mailako araua planteatzeko aukera aurreikusi beharko dute, dagoeneko eratu duten beste autonomia-erkidego batzuek bezala, gizarte-elkarrizketak berezko dituen lan-arloetan esku hartzeko beste erakunde-maila batzuetan eragiten duen neurrian.

Izaera aintzat hartuta, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari dagozkio honako eginkizun hauek:
a) Gizarte- eta lan-arloko edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan eragina duten politika publikoen negoziazioa eta kontzertazioa sustatuko ditu eta horiei bide emango die.
b) Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren plangintza osatzen duten plan estrategikoen eta sailetako planen alderdien inguruan agertuko da, bai eta urteko lan-planean zehazten dituen lege-proiektuen eta erregelamenduzko arauen inguruan ere.
c) Egiten diren ekimenen inguruan, egokitzat jotzen dituen aldaketak, iradokizunak edo ekarpenak proposatu ahalko ditu, eta, berak hala erabakita, bere eginkizunekin zerikusia duten beste batzuk sartzeko eskatu ahalko du.
d) Era berean, irizpide edo printzipio orokorrak ezarri ahalko ditu, eraginpean dauden arloetako sektore-politiken eta jarduketa-planen zehaztapenean kontuan hartzeko.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren erakunde eskudunei bere eginkizunak betetzeko behar beste informazio eskatuko die eta hala jasoko du.

Dekretu hau urtarrilaren 19rako indarrean sartzea aurreikusten da eta indarrean sartzen denetik hilabeteko epean, Gizarte Elkarrizketarako Mahaia eratuko da, eta María Jesús San José Lan eta Justiziako sailburua izango da presidentea.

Gizarte Elkarrizketarako Mahaia urtean bi aldiz batuko da, ohiko bileran, eta aldeek adosten dutenean, ezohiko bileran. Mahaia lantaldeetan antolatuko da; lantalde horiek gaien edo sektoreen araberakoak izango dira, eta helburua izango da aurkeztu beharreko gaiak prestatzea, kontuan har daitezen eta, hala badagokio, erabakiren bat hartzeko.

Oro har, Mahaiaren akordioak eta erabakiak aho batez hartuko dituzte hura osatzen duten aldeek. Hala ere, akordio-proposamen baterako Gobernuko ordezkariak eta Mahaia eratzen duen enpresa-erakundeko ordezkariak ados badaude eta sindikatu-erakunderen batek edo batzuek aldeko botoa ematen badute, proposamena Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren azken erabaki gisa dokumentatuta geratu ahalko da, edozein mahaikidek proposatuz gero, landutako gaiaren inguruan gerora politikak edo jarduketak garatzeko.

**Presidencia**

## VALORACIÓN DE GOBIERNO VASCO SOBRE BREXIT A 15 ENERO 2019

La salida del Reino Unido de la Unión Europea es una mala noticia. No obstante, el Gobierno Vasco entiende que ha de darse respuesta a la elección del pueblo británico refrendada en referéndum el 23 de junio de 2016.

El Gobierno Vasco apoya firmemente un escenario de salida acordada y ordenada como el contemplado en el *Acuerdo de retirada* alcanzado entre los equipos negociadores de la UE y Reino Unido y que recibió el respaldo unánime del Consejo europeo. De esta forma se salvaguardan los intereses de las partes, se protegen los derechos de la ciudadanía y los operadores socioeconómicos, así como se sientan las bases de la relación futura.

En caso de que los acontecimientos de los próximos días conduzcan a una salida abrupta del Reino Unido de la UE, entraremos en un escenario complejo tanto para la UE como, especialmente para el Reino Unido. El Gobierno Vasco trabajará intensamente y en estrecha colaboración con el Gobierno español, las autoridades comunitarias y los miembros de la Comisión de seguimiento del Brexit para salvaguardar los intereses de la ciudadanía y de los operadores socioeconómicos vascos.

Recordamos que la Comisión europea ya ha hecho público su plan de contingencia para paliar el impacto de una salida abrupta. Asimismo el Gobierno español ha dado a conocer la preparación de un paquete de medidas en los ámbitos de su competencia. Confiamos plenamente en que el compromiso político anunciado, tanto por la Comisión europea como por parte del Gobierno español, para que los derechos de la ciudadanía británica que reside en la UE sean plenamente garantizados, encontrará la debida reciprocidad por parte de la autoridades del Reino Unido, quedando así a buen recaudo tanto los derechos de los vascos y vascas que residen en Reino Unido y como los de la comunidad británica que reside en Euskadi. El Gobierno Vasco seguirá de cerca esta cuestión e informará de los avances que se produzcan.

Asimismo, para paliar la incertidumbre de un Brexit sin acuerdo en el ámbito empresarial, el Gobierno vasco va a poner en marcha un servicio especial de información y asesoramiento a las empresas vascas a fin de que estén en disposición de adaptarse al nuevo contexto.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

## EL GOBIERNO VASCO HABILITA UNA HERRAMIENTA PARA ASESORAR A LAS EMPRESAS ANTE LA SALIDA DEL REINO UNIDO DE LA UE

- **En www.brexit.eus las pymes podrán interactuar con la oficina de Londres de la Agencia Vasca de Internacionalización**
- **En febrero se incorporará una herramienta de autodiagnóstico para que las empresas diseñen sus propios planes de contingencia**
- **El 13 de febrero tendrá lugar la jornada "Preparándonos para el Brexit", con presencia del Embajador del Reino Unido en Euskadi, Simon Manley**

La Comisión BREXIT, presidida por el Lehendakari Iñigo Urkullu, asumió el compromiso de diseñar un mecanismo para concienciar a las empresas sobre la necesidad de prepararse para la salida del Reino Unido de la UE y, en los casos necesarios, para la realización de planes de contingencia ante un escenario da salida sin acuerdo el 29 de marzo de 2019.

El Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, a través de la Agencia Vasca de Internacionalización-Basque Trade and Investment (BTI), adscrita a SPRI, ha elaborado un sitio web con toda la información, recomendaciones y alertas acerca de los pasos que las empresas deberán dar para elaborar sus correspondientes planes de contingencia.

A partir del 30 de Marzo de 2019, el Reino Unido será un tercer país. Su retirada cambiará la forma de relación y tendrá efectos significativos para empresas y para la ciudadanía.

El Gobierno Vasco considera que es importante preparar esa salida y tomar a tiempo las medidas necesarias, motivo por el que ofrece asesoramiento para que las empresas puedan reducir al mínimo los perjuicios e incertidumbres de la retirada británica, más aún ante un escenario de no-acuerdo.

En la actualidad, en torno a 500 empresas vascas exportan al mercado británico y unas 60 firmas cuentan con delegaciones comerciales y/o productivas. El Reino Unido es el cuarto mercado de destino y acoge el 6% de la totalidad de las exportaciones vascas.

### Sitio WEB "Brexit hoy"

El Gobierno Vasco ha habilitado el sitio BREXIT.EUS alojado en las páginas del Grupo SPRI y de la Agencia Vasca de Internacionalización que servirá como instrumento para informar, asesorar e interactuar con el tejido empresarial.

La Oficina de BTI London lidera la información y gestión de los contenidos incorporando comunicaciones oficiales e informaciones de interés, en algunos

casos de elaboración propia, que puedan afectar a la relación comercial entre el Reino Unido y Euskadi.

Además de ofrecer y organizar información de utilidad, BTI London emite alertas con advertencias de especial relevancia para las pymes, y mantiene una conversación abierta y permanente con las empresas que planteen dudas tanto de interés general como aspectos particulares que les afecten.

Asimismo, recoge de manera esquemática las recomendaciones para actuar en función de los distintos sectores económicos y atendiendo, asimismo, a aspectos generales como los aranceles, los controles aduaneros, la política fiscal, el transporte o aspectos relacionados con el desplazamiento de trabajadores y trabajadoras.

Este servicio web analiza los diferentes escenarios que pueden abrirse tras la votación que tendrá lugar esta tarde en el Parlamento británico y pone “caras al brexit” con los principales rostros y nombres de las personas relevantes de la política británica y europea.

**Plataforma de autodiagnóstico**

Próximamente, está prevista la incorporación de una plataforma que ayude a las pymes a elaborar sus propios diagnósticos, conforme a las reglas de juego del nuevo escenario. Mediante este análisis, las empresas podrán medir el grado de vulnerabilidad que exponen o, por el contrario, las fortalezas que puedas disponer para que el Brexit les genere nuevas oportunidades de negocio.

**Jornada “preparándonos para el Brexit”**

Este servicio de asesoramiento pone el foco especialmente en un escenario de no-acuerdo ya que requerirá de una implicación de las propias empresas con intereses en el mercado británico.

En todo caso, no es intención del Gobierno Vasco activar ningún mensaje alarmista, pero sí alertar de la relevancia de estar convenientemente preparados.

Por este motivo, el próximo 13 de febrero celebrará una Jornada dirigida al tejido empresarial con el objetivo de ahondar en la necesidad de asumir planes de contingencia, al tiempo que se analizarán los retos y oportunidades que pueden abrirse en el futuro escenario.

La jornada “Preparándonos para el Brexit” contará con la presencia del Embajador del Reino Unido, Simon Manley, y con voces expertas en derecho internacional, comercio exterior y en análisis del Brexit.

La jornada será abierta a todas las empresas que lo deseen y podrán inscribirse a través de https:/www.spri.eus/es/event/preparandonos-para-el-brexit/

**Trabajo y Justicia**

## EL GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO DE CREACIÓN DE LA MESA DE DIÁLOGO SOCIAL

- **El Decreto institucionaliza la Mesa de Diálogo Social como órgano de carácter tripartito, de encuentro y participación del Gobierno y las organizaciones sindicales y empresariales más representativas**
- **Entre sus funciones está la de impulsar y favorecer la negociación y concertación de las políticas públicas en materia socio laboral o que incidan en las relaciones laborales y la negociación colectiva**
- **En el plazo de un mes desde la entrada en vigor del presente Decreto, prevista para el 19 de enero, se procederá a la constitución de la Mesa de Diálogo Social**
- **La representación del Gobierno corresponderá a las personas titulares de los departamentos con competencias en las materias de Trabajo y Relaciones Laborales, Empleo, Industria, Desarrollo Económico y Educación**

El Consejo de Gobierno ha aprobado el Decreto de creación de la Mesa de Diálogo Social como órgano de carácter tripartito, de encuentro y participación institucional del Gobierno Vasco y las organizaciones sindicales y empresariales más representativas.

Adscrita al Departamento competente en materia de Trabajo, la Mesa de Diálogo Social en cuanto instrumento de buena gobernanza para el fortalecimiento de la cohesión social y el progreso económico en Euskadi, es el órgano a través del cual se canalizará la intervención de las organizaciones sindicales y empresariales más representativas en los procesos de diseño y, en su caso, de negociación y concertación de las políticas públicas que incidan en el ámbito socio laboral o afecten a las relaciones laborales y a la negociación colectiva.

El Decreto establece que la representación del Gobierno Vasco en la Mesa de Diálogo Social corresponda a las personas titulares de los departamentos con competencias en las materias de Trabajo y Relaciones Laborales, Empleo, Industria, Desarrollo Económico y Educación. A su vez, forman parte de la composición de la Mesa las organizaciones sindicales y empresariales más representativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que acepten integrarse y participar de forma activa. Cada una de ellas designará a las personas que le representen.

El Decreto, estructurado en 3 capítulos, consta de 10 artículos y en su preámbulo destaca que las sociedades más modernas y avanzadas de la Unión Europea se caracterizan y distinguen por la institucionalización del Diálogo Social entre la Administración Pública y las organizaciones sindicales y empresariales más representativas, por considerar que el diálogo social es el mejor mecanismo para promover unas mejores condiciones de vida, de trabajo y de justicia social, desempeñando un papel crucial para promover la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres y conseguir un trabajo de calidad, en condiciones de libertad, seguridad y dignidad, mejorando el rendimiento y competitividad de la economía y logrando una sociedad más estable y equitativa en su conjunto. Las estructuras del diálogo social así como los procesos que se han desarrollado con éxito han sido capaces de resolver importantes cuestiones de índole económica y social, han alentado el buen gobierno, el progreso, la estabilidad, e impulsado el desarrollo económico.

En este mismo sentido, también expresado por la Organización Internacional del Trabajo (OIT), señala que el Pilar Europeo de Derechos Sociales proclamado conjuntamente por el Parlamento Europeo, el Consejo y la Comisión, en la Cumbre Social de Gotemburgo, establece que el Diálogo Social desempeña un papel fundamental en el refuerzo de los derechos sociales y del crecimiento sostenible e inclusivo. Siendo el principal objetivo del diálogo social el de promover el logro de un consenso y la participación democrática de los principales interlocutores presentes en el mundo del trabajo.

También recuerda que el Gobierno Vasco ha venido impulsando, de manera notable en las tres últimas legislaturas, el permanente diálogo social entre la Administración pública y las organizaciones sindicales y empresariales que ahora se institucionaliza mediante el presente Decreto que persigue consolidar la concertación mediante la institucionalización del diálogo social permanente, lo que sin duda es uno de los fenómenos políticos más enriquecedores de la democracia.

El Decreto se dicta en desarrollo de lo previsto en el artículo 10.2 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, sin perjuicio de que tanto el Gobierno como las organizaciones que integran la Mesa contemplen a futuro, y tras la evaluación de su funcionamiento, la oportunidad de plantear una norma con rango de Ley, a semejanza de otras Comunidades Autónomas que ya la han llevado a cabo, a medida que el diálogo social abarque otros niveles institucionales de intervención en las materias de trabajo que le sean propios.

De acuerdo con su naturaleza, corresponden a la Mesa de Diálogo Social las siguientes funciones:
a) Impulsar y favorecer la negociación y concertación de las políticas públicas en materia socio laboral o que incidan en las relaciones laborales y la negociación colectiva.
b) En particular, se pronunciará sobre aquellos aspectos de los planes estratégicos y los planes departamentales que integren la planificación del Gobierno Vasco, así como sobre los proyectos de ley y normas de carácter reglamentario que determine en su plan de trabajo anual.

c) Podrá proponer, en relación con las iniciativas que se le trasladen, aquellas modificaciones, sugerencias o aportaciones que considere pertinentes y podrá solicitar, por iniciativa propia, la introducción de cualesquiera otras cuestiones vinculadas con sus funciones.
d) Asimismo, podrá fijar criterios o principios de carácter general con la finalidad de que sean tenidos en cuenta en la definición de las políticas sectoriales y planes de actuación de las áreas afectadas.
e) Solicitar y recibir de los órganos competentes de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuanta información precise para el desempeño de sus funciones.

En el plazo de un mes desde la entrada en vigor del Decreto, prevista para el 19 de enero, se procederá a la constitución de la Mesa de Diálogo Social, bajo la presidencia de la Consejera de Trabajo y Justicia, María Jesús San José.

La Mesa de Diálogo Social, que se reunirá con carácter ordinario dos veces al año, y con carácter extraordinario siempre que se acuerde por las partes, se organizará en Grupos de Trabajo, de carácter temático o sectorial, con el objetivo de preparar los asuntos que deban presentarse para su consideración y, en su caso, acuerdo.

Con carácter general, los acuerdos y decisiones de la Mesa se adoptarán por unanimidad de las partes que la integran. No obstante, cuando una propuesta de acuerdo cuente con la conformidad de los representantes del Gobierno y de la organización empresarial integrante de la Mesa y con el voto favorable de alguna o algunas de las organizaciones sindicales, dicha propuesta podrá quedar documentada como una decisión final de la Mesa de Diálogo Social a propuesta de cualquiera de sus integrantes, a efectos del desarrollo de políticas o actuaciones posteriores relacionadas con la materia de que se trate.